

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

74 zenbakia
euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria**



GREBA OROKORRA MARTXOAREN 8an

**Kaleak beteko ditugu indarkeria matxistaren
eta zapalkuntza kapitalistaren aurka**



EAJ: errepresioa, ustelkeria, murrizketak, gaztetxeen desalojoak...

Kanporatu egin behar ditugu kaleko borrokaren bitartez!

Andaluziako hauteskundeetako Voxen emaitzen ondoren, EAJ berehala atera zen PP eta Ciudadanos kritikatzera. Aitor Estebanen esanetan, “Vox zuritzen” dute Andaluzian gobernatzeko helburu hutsarekin. Horrela aprobetxatu du EAJk bere burua “zentroko” alderdi gisa saltzeko, espainiar eskuina baina aurrerakoia den aukera. Hala ere, muturreko eskuinaren gorakadaren aurrean erakusten duen ustezko kezka erabat hutsala da. Inoiz ez du arazorik izan PPrekin itunak egiteko. Gainera, bere txiringito bihurtu dituen euskal instituzioetatik funtsean eskuineko politika berberak babesten eta aplikatzen ditu: murrizketa

sozialak eta errepresioa langile klasearen aurka, leialki ordezkatzeko duen burgesiaren poltsikoak edeki betetzeko. Esaerak dioen bezala: kalean uso, etxean otso.

Errepresioa eta ustelkeria

Cabacas kasuaren epaiketa lotsagarriak agerian jarri du Euskal Herrian ere justizia botereetsuen zerbitzura dagoela. Burgesiari asko interesatzen zaio Ertzaintzaren gaitasun errepresiboa eta inpunitatea mantentzea, eta lan horretan aritu dira aparatatu judiziala eta PSEko eta EAJko politikariak ere. 2012ko apirilaren 5ean, Ertzainen karga

polizialean Iñigo Cabacas erail zuten gomazko pilota batekin. Hilketak hark arduradun politikoak ditu: hori gertatu zenean Eusko Jaurlaritzaren buruan zegoen PSE eta EAJ, frogak ezkutatzeko laguntzeagatik eta Jorge Aldekoa, Bilboko Komisariako Intendente burua, karguz igotzeagatik. Aldekoa izan zen Iñigoren heriotza eragin zuen agindua eman zuena, “Entren en el callejón con todo lo que tenemos, entren en la Herriko” aginduz. Aldekoa, Rodolfo Ares, Estefanía Beltrán de Heredia eta beste zenbait ere akusatuak eserlekuan ezarri behar ziren.

Ez da kasualitatea gaztetxeak izatea EAJk amorru handienarekin

erreprimitzen duen jo puntua. Bere benetako aurpegia goitik behera uzten du agerian Ertzaintza bidaltzen duenean indarrez gaztetxeak hustera, batez ere hiriburuetako gaztetxe garrantzitsuenak. Urtea hastearekin batera, desalojo polizialaren mehatxupean daude Donostiako, Bilboko, Gasteizko eta Iruñeko zenbait gaztetxe. Jabetza burgesaz haratago, EAJk benetan gorrotatzen duena gazte borrokalariekin euren kabuz antolatzea da. Oso gogoan du horrek dakarren arriskua. Argi dago, geroz eta hurbilago dauden hauteskundearen aurrean bere oinarri kontserbadoreenari erakutsi nahi diola berak ere badakiela gogor jokatzeko eta legea eta ordena inposatzeko. Berziki izugarria da Geroa Baik Maravillas gaztetxearen aurka darabilen errepresio amorratua, eta nola erabiltzen duen hori PSNrengana hurbiltzeko, datozen hauteskunde foralen ondoren aliantza posible bat egiteko aukera zabaltzeko.

Bestalde, EAJ ustelkeria kasu mordo estali nahian dabil, agerian uzten baitute zer den benetan: alderdi ustel bat. Josu Izagirre Fiskalak, *De Miguel* kasuaren harira zioen: “trama antolatu bat da, Sizi-liakoa dirudi herrialde serio batekoa beharrean” eta akusatu “ia guztiak” lotura berbera zutela, EAJren duten erlazioa. Baina horrelako kasu askoz gehiago daude: *Miñano*, *Zambrana*, *Noticias*, *Epsilon Euskadi*, *Hiriko*, *Bidegi*, etab. Filtra-zioak eta iruzurrak egon ziren iazko Osakidetza oposaketetan, Osakidetza zuzendari ekonomikoaren (Ricardo Ituarte, EAJren aldetik Santurtziko alkate ohia) anaiak, az-

terketa perfektua egin zuen. EAJren arabera ordea, Osakidetza Administrazio Kontseiluko dimisioek eta kargugabetzeek ez dute zerikusirik horrekin, eraberritze huts bat da.

Alternatiba iraultzaile baten alde. Itunik ez EAJrekin

Instituzioetan muturreko eskuina sartzearen eta Estatu espainiarren deriba autoritarioaren aurrean, EHBilduko buruzagiek berriro ere hauteskunde aliantza zabal bat planteatu dute erabakitze eskubidearen alde, CUP eta EAJ ere hartuko dituen. Baina ezinbestekoa da ulertzea hain serioa den mehatxu hori elikatzen duten faktoreak zein diren: alde batetik, krisi kapitalista eragiten ari den ondorio benetan lagarriak dira, baina, bestetik, ezker erreformistaren gaitasun eza da, horren aurrean benetako alternatiba bat eskainiko duen borroka iraultzaile bat planteatzeko. Mehatxu ho-

rri aurre egiteko asmoz egoera hori eragiten dutenekin eta errepresioa erabiltzen dutenekin elkartzen saiatzea akats zentzugabe eta larria da.

Estatus politiko berriaren itunetik eginiko ibilbideak eta aurrekontuen negoziazioen tirabirek oso argi utzi dute EAJ ez dagoela prest egiten ari denetik ezer ez aldatzeko eta tinko mantentzen dela 78ko erregimena defendatzeko. Gainera, asko interesatzen zaio EHBilduko buruzagiak amore ematea eta EAJren baldintzak onartzea. Beraientzat, aliantzak ezkerreari bere oinarri sozialaren aurrean sinesgarritasuna kentzea lortu behar du, horrela langile klasearen aurkako erasoetan ofentsibara pasatzeko.

Langile klaseak, gehiengo sindikalak eta ezker iraultzaileak gure indarrengan soilik eduki behar dugu konfiantza, mobilizatzeko gaitasunean eta gizartea eraldatzeko borrokan. Jo ta ke. Borrokak aurrea jarraitu behar du.



**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Laguniezaguzu aldezkarria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @EzkIraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Laguniezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Altxamendua frantziar estatuan

CLARE DOYLE
Committee for a Workers' International (CWI/CIT)

Azaroaz geroztik, Frantziak geldiezina dirudien altxamendu bat bizi du. Protesta uholde batek zeharkatu du herrialdea; hasiera batean dieselaren zergaren gorakadaren aurkako mobilizazioa zena berehala bilakatu zen Emmanuel Macron “aberatsen presidentearen” aurkako zapalduen altxamendu.

Abenduaren 10ean, agintari sindikalen, enpresarien eta gobernuaren arteko elkarrikketa baten ondoren, presidentek baieztatu zuen zerga igoera atzera botako zuela eta 10.000 euroko laguntza bat iragarri zuen, besteak beste, gutxieneko soldata 100 euro igotzeko, pentsioen zergak berrikusteko, aparteko orduengatik zerga murrizteko;

gainera, baldintza onean dauden enpresariak animatu zituen langileei Gabonetako bonu txiki bat ordaintzeko. Edonola ere, Macron ez zen mintzatu superaberatsentzako zerga murrizketak atzera botatzeaz.

Biharamunean, protesta gehiago izan ziren, baita polizien eta manifestarien arteko talkak ere, eta ikasle asko mobilizatu ziren. Protesta horiek mugaz beste aldeko Belgikako eta beste herrialde batzuetako langile eta gazteak ere inspiratu ditu, eta mugimendua Europa osora eta haratago hel liteke.

Macron, dimisioa!

Macron eta La Republique en Marche bere alderdiak hemezortzi hila-

bete daramatza boterean, eta manifestazio guztietan eskatu da dimisioa eman dezala. Manifestari veteranoek 1968ko maiatza zuten gogoan, beste batzuek 1789ko iraultza aipatzen zuten.

Hala ere, hau ez da oraindik iraultza bat, baizik eta herritarren sektore zapalduenaren altxamendua, zeina gero eta oihartzun handiagoa hartzen ari den estatu frantziarreko langile klasearengan. Dieselaren zergaren igoera izan da sutea piztu duen txinparta, eta protestak ugaritu ahala, aldarrikapenak ere ugaritu egin dira. Laugarren astean jaka horiek idatzi bat zutela iragarri zuten “krisi honekin amaitzeko aholku batzuekin”: soldatak eta

pentsioak %40 igotzeko proposatzen dute eta sektore publikoan “kontratazio masiboak” egiteko, Frantziak Europako Batasuna uzteko, pribatizazioak eta hezkuntza erreforma atzera botatzeko, NATOtik ateratzeko atzerriko gerrak bukatzeko, frantsesez mintzo den Afrikaren arpilatzeak bukatzeko...

Marine Le Pen eskuin muturreko agintariak globalizazioari eta imigrazioari egotzi dio Frantziako gizartearen krisiaren errua. Hasierako protesta batzuen sentimendu horiek isla zitzaketen, baina ideia horiek berehala baztertu zituzten gobernuaren aurkako borroka komunak piztutako animoek. Jaka horien mugimendua “tous ensemble” guztion mugimendua da.

Abenduaren 10ean, altxamendua indarberritu egin zen, institutueta ehunka ikaslek blokeak antolatu eta borrokara batu zirenean. Ikasleak haserre daude unibertsitate-rako sarbidea ukatzen dieten “erreformengatik”. Haiek eszenatokian sartzea, zalantzarik gabe, faktore

garrantzitsua izan zen abenduaren 11n Philippe lehen ministroak iragarri zituen kontzesioak lortzeko.

Borroka sozialista

Estatuak manifestarien aurka indarkeria erabili izanak lortu duen gauza bakarra manifestariak garaipean lortu arte borrokan jarraitzeko gogoa areagotzea izan da. Gizarteko agintariak nahastuta daude eta ez dakite zer egin. Geruza ertainak jada mugimenduan parte hartzen ari dira. Estatuaren indar armatuak gainkargaturik daude eta desertziorako prest.

Falta dena gizarteko indar boteretsuenaren mobilizazio masiboa da, langile klasearena. Dagoeneko, langileek adierazi dute gobernuaren eta enpresarien aurkako haserre, eta sektore askok grebetan eta borroketan hartu dute parte.

Frantziako Gauche Revolutinaire-eko (CWI/CIT) kideak mugimenduan, blokeoetan, lizeoetan eta protestetan parte hartzen ari dira. *L'Egalite* egunkariaren ale be-

rezia atera dute, gobernu gorrotagarria botako duen 24 orduko grebara deituz.

Mugimendu honen ezaugarri nagusietako bat da liderrik ez izatea eta, beraz, gobernuak ez du nor erosi ekintza deskonbokatzen. Bozemaileak ditu, adibidez Benjamin Cuachy, zeinak adierazi zuen mugimendua ez dela ogi apurrekin asetuko, *baguette* osoa nahi dutela. Guk, iraultzaile eta marxista moduan, galdeztzen diogu: zergatik ez okindegi osoa?

Gure proposamena garbi dago: Melechonek Biltzar Konstituziogileak proposatu du; guk batzorde iraultzailea proposatzen dugu, maila guztietako asanbladetatik demokratikoki aukeratutako ordezkariak osatua, lantokietan, bulegoetan, eskoletan, auzoetan eta fabriketan batzordeak eratuz.

Batzorde horiek langile eta pobreen gobernu bilaka litezke. Mugimenduaren aldarrikapen guztiak jasotzen dituen programa harturik borrokatuko lukete, horiek gauzatze bidea ezinbestean banku handi eta enpresa nagusien jabetza publikoa eskuratzea dela defendatuz.



U1eko epaiaren eta 78ko erregimenaren errepresioaren aurka

Greba Orokorra!

Langileen eta gazteen Kataluniako errepublikaren alde!

ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA

Abenduaren 28an Auzitegi Gorenak U1eko galdeketa harira auziperaturiko preso politikoen abokatuek idatziak aurkezteko epea zabaldu zuen. Epe hori amaitzen denean, epaiketarako atzera kontua hasiko da.

Epaiketa hori azken lau hamarkadetako eskubide demokratikoen erasorik handiena izango da. Burgesia espainiarrak, 78ko erregimenaren estatu-aparatuak eta frankismotik zuzenean datorren sistema judizialak Katalunyak herriari lezio bat eman nahi dio, berriz burua altxa ez dezan.

PSOEn gobernua PPK irekitako ofentsiba errepresiboa mantentzen du

PSOEk hautaturiko Fiskaltza Orokorrak eta Estatu Abokatutzak

bere egin dituzte PPren fiskal orokorren “argumentu” berberak. Altxamendu delitu gisa tipifikatu dituzte eskubide demokratikoak gauzatzea, U1eko bozketa eta U3ko greba orokorra eta manifestazio baketsuak.

7 eta 25 urte arteko espetxe zigorrak eta beste hainbat inhabilitazio urte eskatzeak samindura orokorra piztu zuten Katalunyan. Haserre hori berriro ere masiboki kalera ateratu zen abenduaren 21eko mobilizazioetan. Egun horretarako Pedro Sanchezek Ministroen Kontseilua deitu zuen Bartzelonan. Probokazio argia izan zen, hautaturiko eguna Estatuak 155a dekretatu ostean inposaturiko hauteskundeen urtemuga baitzen. Eta hauteskunde horietan ere, Katalunyak herriak gehiengo absolutua eman zion independentismoari, jada Ulean adierazi zuen Katalunyak errepublika eratzeke nahi berbera berretsiz.

PSOEek probokazio horri Madriletik Mossos d'Esquadren kontrol zuzena hartzeko mehatxua gehituzion. Praktikan, hori 155era itzultzea izango litzake. Lotsagarria da Unidos Podemoseko eta Catalunya en Comúko buruzagiek, PSOEn gangdik desmarkatu eta eskuinari eginiko kontzesio horiek salatu beharrean, nola jarraitzen duten Pedro Sanchezen karterarik gabeko ministro gisa jarduten.

A21ean jendetza kalean

Abenduaren 21eko Ministroen Kontseiluak Katalunyan eragin zuen haserre hain zen zabala, ezen urriaren 1 eta 3ko altxamenduaren pareko errebolta berri bat eragin zeza keela. Hori ekiditeko, Sanchezek eta Torrak bilera bat akordatu zuten, baina gobernu bietako ordezkarien “goi-bilera” patetiko horrek berriro ere agerian utzi zuen 78ko erregimena eta PSOEn gobernu ez daukela prest ezer negoziatzeko, ez bada Katalunyak errepublikari eta autodeterminazio eskubideari uko egitetik hastea.

Sanchezen eta Torraren arteko gobernuen harremanen emaitza oso konkretua izan zen. Generalitateak errepresioaren antolakuntza bere gain hartu zuen eta zortzi mila Mosso bidali zituen Bartzelonako erdigunea polizialki hartzera eta hiriko hainbat puntutan manifestazio eskubidea eragotzi edo mugatzera.

Poliziaren esparruen, errepresioaren eta Mossoen nahiz Polizia Nazionalaren probokazio eta meha-



txuen gainetik, abenduaren 21ean milaka eta milaka pertsonak kaleak hartu genituen berriro ere. Gainera, mobilizazioak Governarekiko geroz eta kritikoagoa den jarrera eta giroa ere azaleratu zuen.

Haserre zabal horrek erakusten du zer gerta daitekeen U1eko epaiketa fartsa hasten denean. Milioika pertsona nazkaturik daude hitzak entzuteaz, eta borroka plan argi eta irmoa eskatzen dute Estatuaren errepresioa gelditzeko eta erreakzio espainolista garaitzeko, kaleko mobilizazio masiboaren bitartez.

Ezker borrokariaren fronte bateratua errepublikaren alde!

Esquerra Revolucionàriatik dei egiten diegu errepublikaren alde borrokatzen dugun guztioi: CUP, CDRak, ANCKo eta Òmniumeko oi-

narriak, sindikatu borrokariak, Sindicat d'Estudiants, SEPC, Universitats x la República... fronte bakarra antola dezagun eta mobilizazio bateratuen plan bat plazara dezagun, greba orokor bat antolatuz U1eko epaiketa hasi baino lehen honakoa eskatuz: preso politiko guztiak kargurik gabe berehala askatzea, exiliatuak itzultzea eta errepublikar aitortzea.

Estrategia honetan ezinbestekoa da programa antikapitalista eta sozialista bat defendatzea. Mugimenduko zuzendaritzatik kendu behar ditugu jendea etxera bidali eta herriari bizkar emanda akordioetara iritsi nahi dutenak. Errepublika nahi dugu eta orain nahi dugu. Baina errepublika hori soilik langileen eta gazteen errepublika izan daiteke. Murrizketekin eta etxe kaleratzeekin amaituko duen errepublika, soldata duinak bermatuko dituen, kali-

tatezko osasun eta hezkuntza publikoa dituen, matxismoaren, arrazakeriaren eta homofobiaren aurka egingo duena. Hori da mobilizazioa indartzeko eta zabaltzeko modu bakarra, langile klasearen eta herriaren osotasuna irabaziz. Hori, Vox, PP eta Csen aurka egitearekin batera, PDeCATeko buruzagiei errezeloz begiratzen dieten langile sektoreak irabazteko bidea ere bada, gogoan baitute politikari burges horiek Gobernaren buruan zeudenean aplikatu zituzten murrizketak eta erasoak ere.

Idea horien alde borrokatzeko eta sistema kapitalistarekin amaitu eta langileen eta herriaren errepublika sozialista bat eraikitzeke beharra argi planteatuko duen alderdi iraultzaile indartsu eta antolatu bat eraikitzeke, batu zaitez Esquerra Revolucionàriara.



Vox, Ciudadanos eta PPren aurrean, ez dago denbora galtzerik!



Eraiki

Ezker Iraultzailea!

IZQUIERDA REVOLUCIONARIA

Langile klasearen eredu ezin hobea dira abenduaren 3an Andaluziako hiriburu nagusietan Voxen aurka manifestatu ziren ehunka pertsona, bereziki, gazteak; erabat kont-

ziente gara hauteskunde aurrerapen honek dakarren mehatxuaz.

Arriskua benetakoa da, Andaluziako Gobernuaren eratze prozesuak erakusten duen legez. Vox fil-trorik eta disimulurik gabeko diskurtso erreakzionarioa jaurtitzeaz

arduratzen da, bere oinarria sendotu eta aurrera egiten jarraitzeko. Diskurtso hori argi ikusi da alderdiko 12 diputatuek PPrekin eta Csekin akordioa babesteko baldintza gisa mahai gaineratu dituzten eskakizunetan: genero indarkeria-

ren aurka borrokatzeko laguntzak ezabatzea eta beraien programa matxista eta homofobia onartzea. Bestalde, badakigu PP eta Csen gobernu batek Andaluziako langileen eta gazteriaren eskubide demokratikoen aurkako erasoak gogortzea ekarriko duela, murrizketa sozial gehiago, oligarkia lur-jabearentzako pribilegio gehiago, zezen gehiago, guardia zibil gehiago eta espainolismo ugari. Alde horretatik, bapo beraz.

Voxen eta PPren eta Csen arteko desberdintasuna ez da, ordea, hain handia. Alde batetik, Voxekoei uste dute bozka gehiago lortzen dutela haien posizio erreakzionarioak, matxistak, patriarkalak eta homofoboak itzulingururik gabe defenditzen dituztenean. Bestetik, PP eta Ciudadanosek ideia berdinak badituzte ere, hobeto ikusten dute hori praktikara eramateko itxurak gordetzea, botoak mantendu eta irabazteko.

Hori guztia oinarritzko kontu bat argitzera dator: PP, Cs eta Vox bloke erreakzionario beraren parte dira. Eskuin “demokratikoa” eta “muturrekoa” desberdintzen ahalegindu dira PSOEko zuzendaritza, Podemos eta Alberto Garzón, baina hori ez da tradizio berbera amankomunean duen espainiar eskuina zuzitzeko saiakera besterik. Desberdintasun bakarra honakoa da: Voxek esplizitatu egiten du tradizio hori, publikoki eta modu irekian eta desafiatazalean.

Polarizazio sozial eta politikoa

Krisi ekonomikoko hamarkada batek apurtu egin du espainiar kapitalismoaren oreka ahula eta, ondorioz, polarizazio sozial eta politikoa sakoneko giroa garatu da.

Eskuina konfiantzaz beterik sentitzen da eta ofentsibara pasatu da ikusita ezker parlamentarioaren anbizioz handiena sistema ustel hau modu eraginkorragoan kudeatzea dela. Ezkerreko buruzagi erreformistek uko egiten diote meta-

tu den ezinegonari irteera antikapitalista eta sozialista bat adorez proposatzeari.

Vox fenomenoak agerian jarri du beste herrialdeetan dagoeneko bizi den errealitate bat. Estalki demagogiko baten azpian fusionatzen du aurreiritzi arrazisten eta matxisten doilorrena eta zitalena nazionalismo espainolista atzerakoiarekin (zeinaz baliatzen baitira Kataluniako herriaren aurkako gorrotoa barreiatzeko), gizarteko sektorerik zapalduenaren desesperazioa kapitalizatze eta erreakzionarioenak suspertzeko.

CEOE patronal espainiarraren errebindikazioen bilduma osatua da Voxen programa (*100 Medidas para la España Viva* izenekoa), nazionalkatolizismo inperialaren irriken eta errepresio aparatuen eskakizun gogorrenen bilduma, alegia. Hala ere, proposamenak eskandaluzkoak iruditu ala ez, Estatuaren eta 78ko erregimenaren deriba autoritarioaren ondorio logikoa dira, kapitalismo espainiarraren krisi larriko testuinguru batean.

Egoera honetan, PSOEren keinueen politikak ez du balio herritarren gehiengoak jasaten dituen arazo larrietako bat bera ere konpontzeko, batik bat, murrizketen politikak mantendu dituelako eta ez delako ausartu hainbesteko kaltea eragin duten lan eta pentsioen kontrae-

rreformak indargabetzera. Catalunya dagokionez, Rajoyren Gobernuaren lorratza jarraitzen du, bere logika errepresiboan eta antidemokratikoan, Vox eta eskuineko blokea adoretuz eta, oro har, bi-dea irekiz.

Bestalde, Podemosek eta Pablo Iglesiasek “Trantsizioko adostasunak” berriztea proposatzen dute, akordio parlamentario berri baten bitartez, Rajoyren aurkako zentsura mozioa babestu zuten indar politikoen artean. Estatu frankistaren aparatua ukiezin mantentzen duten akordio berdinak berritu nahi ditu, Estatu horren ideologia, tradizioak eta esentzia bere horretan utziz. Estatu aparatu horixe da, hein handi batean, Voxen oinarria elikatzen duena.

Eskuina ez dute geldiaraziko ez demokraziarako dei hutsalek, ezta Voxekin itunik ez egiteko PPri eta Ciudadanosi egindako apelazioek. Soilik kaleko mobilizaziorik adoretuenak geldi ditzake erreakzioaren hauteskunde gorakada eta gure eskubideen aurkako erasoak. Hortaz, beharrezkoa da borrokarako erakunde indartsua, iraultza sozialistaren programa defendatzen duena, masa mugimendu hori bultzatzeko. Esperientzia historikoak argi utzi du alternatiba bakarra dagoela muturreko eskuinaren aurrean: langile klasearen botere antolatua.



Greba orokorra Martxoaren 8an

Kaleak beteko ditugu indarkeria matxistaren eta zapalkuntza kapitalistaren aurka

Mobilizazio feminista masiboek benetako lurrikara eragin dute Euskal Herriko kaleetan, eta baita Estatu mailan ere. Iazko martxoaren 8ko greba historikoak etengabeko mobilizazio mugimendua altxa dute, eta geroztik ez du atzera egin ez ezeren ez inoren aurrean. Langile klaseko milioika emakumek, gizonezko mordoak eta, batez ere, gaztek parte hartu dugu ikasle eta langile grebetan eta manifestazio jendetsuan. Zuzenean salatu dugu justizia patriarkal eta klasista hau, murrizketak aplikatzen eta emakume langileak bereziki gogor kolpatzen dituzten instituzio eta politikariak eta sistema honek sortzen duen indarkeria matxista guztia. 2019ko martxoaren 8ko greba orokorra erabat beharrezkoa da eta borroka hau sakontzeko eta zabaltzeko sekulako bultzada izango da.

Emakume langileak eta gazteak lehen lerroan

Euskal Herrian, sektore feminizatuetan emakume langileak burutu dituzten lan gatazken eta greben gorakadak argi erakusten du zein den mugimendu honen oinarrian dagoen klaseko izaera. Erresidenziak, etxez etxeko laguntza zerbitzuak, jantokiak, hoteletako kamaeroak, etab. izan dira borrokan egon diren sektoreetako batzuk. Esplotaziorik gogorrena jasaten dutenak langile klasearen borrokaren buruan jarri dira. Publikoak izan behar-

ko luketen sektoreetako langileak dira, baina EAJ eta PSEren gobernuak erabat pribatizatu dituzte zerbitzuak, eta horietan geroz eta lan prekarietate handiagoa dago. Gainera, langileak borrokatzen hasi direnean, Eusko Jaurlaritzak greba eskubidea ukatuz erantzun die, erabat gehiegizkoak diren gutxieneko zerbitzuekin, eta langileen aurkako difamazio kanpainekin, enpresariak babestuz.

Gazteria ere borrokaren abangoardian egon da. Mobilizazioak masiboki betetzeaz gain, ikasle greba jendetsuak egin dituzte maiatzaren 10ean La Manadaren epaiaren aurka eta azaroaren 14an heziketa sexual inklusibo eta askea exijituz. Matxismoa ikasgeletatik kanporatzeko borrokak garrantzia berezia eduki du eta mobilizazioa bizien mantendu den fronteetako bat izan da.

Erreakzioak emakumeen mugimendua aurka eraso du. Ez dira pasako!

Elite ekonomikoen zerbitzura dagoen estatu aparatuek emakumeak kolpatzen gaitu, altxa garelako eta inspirazio iturri bihurtu garelako gizarite hau eraldatzeko borrokatzen dugun guztiontzat. La Manadaren epaiak edo Huelvako sasoiko langileen kasua artxibatzeak argi erakusten dute justizia patriarkal honen benetako aurpegia: kolpe eredugarri bat eman nahi diguten frankistez beteta dauden instituzioetatik.

Vox, PP eta Ciudadanosen blokeak gerra irekia deklaratu dio feminismoari, eta emakumeen eskubideak are gehiago erasotzeko kanpaina abiatu du. Gainera, nahiz eta Pedro Sanchezen gobernuak Madrilen edota EAJrenak Gasteizen feminismoz eta berdintasun hitzez ahoa bete, ez dute inolako funtsezko neurriarik jarri mahai gainean zapalkuntza honen amaitzeko. Justu kontrakoa.

Epai lotsagarrien aurrean, PSOEk buruzagiak “botere banaketaren” iruzur hori errespetatzeko eskatuz atera dira. Emakume langileari eragiten dion murrizketen politikekin jarraitzen dute eta dirutza oparitzen die Eliza Katolikoari bere diskurtso matxista eta homofobia ikasgeletatik zabaltzen jarrai dezan.

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista baten alde

Horrek guztiak erakusten du beharrezkoa dela feminismo iraultzaile eta antikapitalista defendatzea. Emakumeen aurkako zapalkuntza eta indarkeria sistema kapitalistan erroturik daude. Emakume langileok, zapalkuntza hau benetan jasaten dugunok, aldarrikapen konkretuak ditugu ekonomikoki menpeko ez izateko eta arrisku egoeran ez egoteko: lan duina soldata duinekin; zerbitzu publiko doakoak haurren, adinekoen eta gaixoen zaintzarako; laguntza ekonomikoak bikoterik

ez duten amentzat eta indarkeria matxista jasan duen guztiontzat; etxebizitzarako benetako eskubidea eta legez etxe kaleratzeak debekatzea; prostituzioa abolitzea; eredu kondenak erasotzaileentzat, bortxatzaileentzat eta emakumeak jazarren edo esplotatzen dituztenentzat. Judikaturatik frankistetak kanporatzea... Baina horretarako ezinbestekoa da kapitalista handien aurka egitea, elizako goi hierarkiaren, bankaren eta instituzioetan dauden frankisten aurka.

Isilik eta esaneko nahi gaituzte. Zapaldu nahi gaituzte. Baina gure mugimendua askoz ere indartsuagoa da eta tinko erantzun behar dugu. Klaseko sindikatuak datorren martxoaren 8an 24 orduko greba orokor bat deitzeko exijitu behar zaie, eta mixtoa izan dadila. Horrela geratuko dugu dena. Ez dugu lanuzte sinbolikorik eta postureozko feminismo nahi! Ekintzak nahi ditugu eta hori soilik kalean borrokatuz lortuko dugu, horrelaxe lortu baititugu gure eskubide guztiak.



EAJ eta PSEren Eusko Jaurlaritzak prostituzioa erregulatu nahi du

Hipokresiarik ez! Geure gorputzak ez dira merkantzia!

LAURA LUENGO
Emakume Aske eta Borrokalariak

Eusko Jaurlaritzak prostituzioa erregulatu nahi du Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Legearekin. Dekretuaren proposamenaren putetxeak “sexu aisiko jarduerak modu libre eta independentean egiten diren konkurrentzia publikoko establezimendu” gisa definitzen ditu. Horrela, EAJ-PSEren Eusko Jaurlaritzak Estatu espainiarreko alderdi kapitalisten buruan jarri da, emakumeen gorputzen esplotazioa beste edozein negozioren parean jartzen saiatzeko, proxenetak mafioso izatetik enpresari errespetagarri bihurtzeko bidean.

Proposamen lotsagarri honetan jartzen du esate baterako putetxeek “aldagela eta atsedene gune bat eduki behar dutela horretan jarduten dutenentzat, ezingo dena etxebizitza gisa edo gaua igarotzeko erabil”i. Hori, hain zuzen ere, hitzez onartzea da esklabotza sexualaren jazarpena pairatzen duten emakumeek jasaten dituzten baldintza gizagabeak. Preserbatiboak eskura jarriko dituela ere bermatuko omen du, horiek erabiltzeko pedagogia eginez. Bere zinismo mugagabea, dekretu hori aurpegia garbitzeko erabil nahi du, proxeneten borondarte ona eskatuz prostitutei atsedene hartzen uzteko, edo pedagogiarekin putazaleei kondoiak erabili di-

tzaten. Horrela defendatzen direla uste al du EAJ-PSE gobernuak emakumeen eskubideak? Proxenetek legeko marko bat emanez, gure gorputzak esplotatzearen kontura irabazi lodiekin poltsikoak betetzeko bidea irekiz?

Eusko Jaurlaritzak hori justifikatzeko dio “hor daudela, legezkoak direla, eta ezin direla alde batera utzi”. Eta dio: “Edonola ere, posizio abolizionistaren eta legeztatzearen aldeko posizioaren arteko eztabaida ikaragarri konplexuan sartu beharrik gabe, errealtatea da lokal publiko batzuk daudela eta horiek ezaugarri bereziak dituztela ostalaritzako edo aisialdirako beste lokalekin alderatuz”.

Burgesiak, feminismo burgesa erabiltzen duen moduan ohikoa den bezala, paso egiten du abolizionismoaren eta erregulazionismoaren arteko eztabaidan funtsean duen esanahi praktikoa sartzea. Baina zuzenean bigarren aukeran kokatzen da, prostituzioa legeztatzeko lehen urratsa emanez. EAJren feminismo burgesaren ahotsa den Emakundek argi dauka. Eusko Jaurlaritzaren orrialdean honelaxe dio: “Momentu hauetan, prostituzioaren erregulazioa zintzilik dagoen gaia da, bai jarduera profesional gisa aitortzeko, edo baita debekatzeko ere. Emakundetik pentsatzen dugu erregulazio horri aurre egiten ez zaion bitartean, prentsan prostituzio iragarkiak galarazteak prostituzioan borondarte jarduten duten emakume askori kalte egingo liekela”.

Prostituten eskubideak defendatu esklabotzarekin amaituz

Dekretu proposamenarekin batera atxikitako informeei, azaletik bada ere, Euskadin prostituzioaren negozioan dagoen errealtatearen pista batzuk ematen dituzte. “Emakunderen datuen arabera, 2007an 1.820 emakume zeuden prostituzioan jarduten. Horietatik %85 eta %90 artean atzerritarrak ziren” eta “gehiengoak (1.199) klubetan jarduten zuen, batez ere lokal “handietan” eta hiri inguruetakoko lokaletan”. Urte hartan, 77 bat putetxe zeuden EAEn guztira. Estatu mailan, 1.700 putetxe daude eta negozioak egunero 5 milioi euro mugitzen ditu. Bertan harrapaturik daude 400.000 eta 600.000 emakume, Errumania-tik, Bulgariatik, Nigeriatik edo Dominikar Errepublikatik ekarriak.

Oso urrutira joan gabe, Irun da putazale asko erakartzen dituen tokietako bat. Hemengoez gain, askok muga zeharkatzen dute, Estatu frantsesean “erosleak” zigortu



egiten baitira. Nori lagunduko lieke prostituzioa legeztatzeak? Prostituzioarekin amaitzeki eta biktimei laguntzeki urrun, bizi baldintza duinak emateki urrun, jazartzen eta kolpatzen dituztenetatik babesteki urrun, horrek erabateko legitimitate juridikoa emango lieke proxenetek.

Erregulazionismoa ala abolizionismoa: erreformismoa ala iraultza

Gizarte klasista, matxista eta arrazista hau eraldatzea helburu dugun iraultzaile garen aldetik, kontzienteki borrokatzen dugu gizarte honek sistemaren okerrenera asimilatzeke ezartzen dituen mota guztietako presioen eta saiakeren aurka. Horregatik borrokatzen dugu prostituzioaren aurka edonolako forma duelarik ere. Posizio abolizionista dugunok ez ditugu ukatzen

prostituten eskubideak. Alderantziz. Defendatzen duguna da prostitutek langabezia laguntza mugagabea edukitzea lana bilatu arte (eta horrela ez lukete zertan prostituitu) doakoa eta unibertsala den osasun eta hezkuntzarako sarbidea, etxebizitzarako sarbidea eta, noski, atzeritar legea indargabetzea eta deportazioak amaitzea, pertsona migratzaile guztiek izan ditzaten beren eskubideak aitortuak.

Noski alternatiba hori defendatzeak sistema kapitalistaren osotasunarekin talka egitea esan nahi du. Sexu esklabotzaren negozio eta industria erraldoiak sortzen duen basakeria eta zapalkuntzaren aurkako borroka, erabat loturik dago emakume zapaldu guztien askapenerako borrokarekin. Askapen hori lortzeko ezinbestekoa da sistema kapitalistarekin amaitzeko programa bat defendatzea eta gizarte sozialista bat eraikitzeke borroka.



Rosa Luxemburgo

Iraultzaile erosezina

AINOA MURCIA
Izquierda Revolucionaria

Urtarrilaren 15ean 100 urte bete dira Rosa Luxemburgo erail zutenetik Karl Liebknechtekin batera. Iraultzaile handia, militante internazionalista eta marxismoaren teoriarria, bere bizi, indar eta adimen osoa gizartearen eraldaketa sozialistari eskaini ziolako hil zuten.

Rosa Luxemburgo 1871ko martxoaren 5ean jaio zen Zamoscen, errusiar tsarismoaren menpeko Poloniako hiri txiki batean. Jaio eta gutxira, bere familia Varsoviara mugitu zen, eta bertan hasi zuen ibilbide politikoa 15 urterekin. Geroztik, borroka nekaezinez, exilioz eta errepresioz betetako bizialdia izan zuen.

Rosa gazteak paper garrantzitsua jokatu zuen, lehenik, Poloniako sozialdemokraziaren eta, ondoren Alemaniako sozialdemokraziaren garapenean. Tinko borrokatu zuen erreformismoaren eta gerra inperialistaren aurka eta langile internazionalismoaren defentsan. Era berean, paper garrantzitsua izan zuen klaseko feminismo iraultzailearen aldeko borrokan, Clara Zetkinekin batera.

Hain zuzen ere, Rosa Luxemburgoren ekarpen handienetakoa izan zen erreformismoaren eta oportunismoaren aurkako borroka. Joera politiko horiek sozialdemokraziaren barruan sortzen hasi ziren, besteak beste, goraldi ekonomikoaga-

tik, 1890ean SPD alderdia legeztatu zutelako eta erakunde burgesetan gero eta posizio politiko handiagoa zuelako, zeinaren menpe jarri baitzuten alderdi ekintza oro. 1898an Bernsteinek artikulua sorta bat idatzi zuen iraultzaren ikuspuntu marxista abandonatu izanari oinarri teoriko bat emateko, eta sozialismoa lortzeko bide bakartzat erakunde kapitalisten elkarlan baketsuaren defentsa egin zuen.

Rosa Luxemburgok idatzi sorta horri erantzun zion eta, gerora, *Erreforma edo Iraultza* liburuan bildu zituen guztiak. Bertan azaltzen da erreformen eta hobekuntzen aldeko borroka erabat beharrezkoa dela langile klasearen kontzientziak aurrera egin dezan, langileak jabetu daitezen gizartea aldatzeko jakatu behar duten paperaz, baina hori masen ekintzen produktua da, ez gobernatzen duenaren edo negoziatzeko gaitasuna duenaren borondataren arabera.

Iraultza lehertzen da Alemanian

1918ko azaroan, Kielgo marinelak altxatzearekin batera mugimendu iraultzailea piztu zen Alemanian. Altxatutako langile eta soldaduek hiriak hartu zituzten, bata bestearen atzetik, kartzelak ireki eta preso politikoak askatu zituzten, fabrikak eta kuartelak okupatu eta Langileen eta Soldaduen Batzordeak osatu. Mugimenduak kaiserra garaitu zuen. Egun gutxiren buruan, langile klaseak errepublika aldarrikatu eta Alemaniaren eraldaketa sozialistarako bidea ireki zuen.

Edonola ere, burgesiak ondo ikasia zuen iraultza boltxebikearen ikasgaia eta Alemanian gauza bera gertatzea eragozten ahalegin guztia egin zuen. SPDren zuzendaritza eta masen sektore zabal baten aurrean zuen autoritatea erabili zuen iraultza barrutik sabotatzeko. Ebert, Scheidemann, Noske eta Alemaniako inperialismoa babestu zuten beste zenbait agintari sozialdemokratek koalizio bat ados-



tu zuten armadako goi karguekin Langile eta Soldaduen Batzordeak kontrolatzeko.

Halere, kontrairaultzak erresistentzia bortitza izan zuen Berlingo langileen eta bere erakundearen artean, batez ere Liga Espartakistarekin, Rosa Luxemburgok eta bere kide internazionalistek sortua. Hor-tik jaio zen Alemaniako Alderdi Komunista 1918ko abendu bukaeran.

Halere, ez zen nahikoa izan Berlingo langileen kemen eta sakrifizioa, espartakistek ez zuten lortu alderdi iraultzaile bat sortzea. KPDren fundazio kongresuan, Luxemburgo gutxiengoan geratu zuen, 1919ko urtarrileko Batzar Konstituziogilerako hauteskundeetan parte hartzeko defentsan. Monarkiak, militarrek eta sozialdemokraziak ahultasun hori baliatu zuen iraultza erabat zapaltzeko eta abangardi iraultzailea suntsitzeko.

Rosa Luxemburgo eta Karl Liebknecht Freikorps-en komando batzuek erail zituzten, Noske barne ministro sozialdemokrataren aginduz, eta iraultzaren porrota izan zen. Ondoko hilabeteetan, milaka

komunista masakratu zituzten eta batzordeak behin betiko ezeztatu. Martxoaren 10ean Leo Jogiches hil zuten, zeinak KPDren antolakuntza mantendu zuen eta Rosa Luxemburgoren ondarea salbatu.

Alemaniako iraultzatik 100 urtera, iraultzaileok orduko pertsonaia nagusienaren bizitza eta obra aldarrikatzen ditugu. Ekarpene teoriko eta praktikoa handiak egin zizkion marxismoari eta klase arteko borro-kari, baina erreformismoak eta estalinismoak nahita ezkutatu, desitxuratu eta kalumniatu dute hori.

Ordena nagusi da Berlingen artikuluan Rosak honela idatzi zuen: “Zuzendaritzak huts egin du, baina zuzendaritza berria sor dezakete eta sortu behar dute masek. Masak erabakigarriak dira (...). Eta horregatik, ‘porrotetik’ sortuko da etorkizuneko garaipena. ‘Ordena nagusi da Berlingen!’ Ipurgarbitzaile ergelak! Zuen ‘ordena’ harea gainean eraikia dago. Bihar, iraultza berriro altxatuko da eta, ikaratuko zarete, tronpetez lagunduta halaxe iragarriko du: izan nintzen, banaiz eta izango naiz!”.

Venezuela

Eskuinaren eta inperialismoaren estatu kolpea garaitu behar da!

► Irakurri adierazpena osorik euskalherriasozialista.net web orrian



Venezuelako egoera une oso kritikoan dago. Berriki Asanblada Nazional kontrairaultzaileko presidente hautatua izan den Juan Guaidó eskuindarrak bere burua presidente izendatu du eta bere jarraitzaileak kaleak hartzera deitu ditu Maduroren gobernua eraitsi arte. Berehala, Latinoamerikako eta munduko gobernu atzerakoiak, Bolsonaro (Brasil) eta Donald Trump (AEB) buruan direla, Venezuelako “presidente legítimo bakarra” Guaidó dela adierazi dute. Estatu kolpe hori txalotu dutenen artean daude Europar Batasuneko agintariak, eskuin eta eskuin muturreko alderdiak, Pedro Sanchez Moncloa-

tik eta, noski, Urkullu lehendakaria eta EAJ.

Guaidók guztiontzako gobernuaz hitz egiten du, adiskidetzaz, etab. baina eskuindar hori eta bere aldeko indarrak gobernura iristen badira, benetako amets gaiztoa izango da milioika langile eta nekazariarentzat, hain zuzen ere, krisi ekonomikoa gogorren jasaten dutenentzat. Guaidóren agenda politiko eta ekonomikoa aplikatzeak zera esan nahi du: kaleratu diren gastu sozialak izugarri murriztea eta errepresio basatia sindikatuen, mugimendu sozialen eta ezkerreko ekintzaileen aurka, agian bere lagun Duque, Bolsonaro edo Macrirena baino odoltsuagoa.

Mundu mailako burgesiaren komunikabideek Venezuelako egoerak sozialismoaren porrota esan nahi duela zabaldu nahi dute. Venezuelan bertan, eskuinak hondoratze ekonomikoa erabiltzen du masen artean, sozialismoa, langile kontrola edo, orokorrean, ezkerreko edo iraultzaile usaina duen ideia oro zikintzeko. Baina Maduroren politikak ez dira sozialistak. Azken hilabeteetan murrizketa oso gogorrak egin ditu gastu sozialetan eta soldatetan, eta milaka langile kaleratu ditu enpresa publikoetatik, hori “mistika iraultzaile” iruzurti batekin estaltzen saiatu arren.

Beharrezkoa da kolpearen aurkako erresistentzia antolatzea, Guaidóren, eskuinaren eta inperialismoaren benetako helburuak salatzetik abiatuz. Premiazkoa da langileen eta herriaren eskubideak defendatzeko ekintza komiteak antolatzea lantoki eta auzo guztietan. Eta beharrezkoa da, horien bidez, klaseko programa benetan sozialista defendatzea, monopolio pribatuak eta bankuak desjabetzea, hiperinflazioarekin eta ustelkeriarekin amaitzeko. Burokraziaren pribilegioak abolitu behar dira, eta benetako boterea langile klasearen eta zapalduen eskutara pasa. Eskuinaren biolentziaren aurrean, mobilizazio masiboak eta guztiz legítimo den herriaren autodefentsa antolatu behar dira. Soilik herriak salba dezake herria!



Huerta de Peralta langileak greba mugagabea

Aski da! Patronalaren eta poliziaren errepresiorik ez!

MIGUEL MITXITORENA
Ezker Iraultzailea · Nafarroa

Huerta de Peralta langileak greba mugagabea daude abenduaren 26tik, besteak beste, kaleratuak izan ziren lankideak beren lanpostuetara itzul daitezen.

Borroka honetan langileek gogor ekarri dute zein baldintza tamal-

garrietan zeuden duela gutxi. Lanegun amaigabeak zituzten, hitzarmenean ezarritakoa baino gutxiago kobratzen zuten, ez zuten oporrallirik, kontratuetan irregulartasunak zeuden eta gainera lanetik botatzeko mehatxuarekin zeuden protestatzen bazuten. Egoera honen aurrean antolatzea eta enpresa komitea eratzea erabaki zuten aurre-

rapen handiak lortuz. Horrek enpresaburuaren mendeko gosea eragin du eta 6 langile kaleratu zituzte.

Grebako lehen egunetik bertatik poliziaren errepresio bortitza jasan behar izan dute langileek, batez ere Foralaren borra kolpeak. Bestalde, langileak nekazal sektoreko patronalaren egoitza aurrean ere mobilizatu dira. Enpresariak diskurtso arrazista batekin langileen aurka jo zuten, iruzurtiak direla eta ez dituztela zergak ordaintzen leporatuz. Gainera, Felix Barriain patronaleko presidenteak DBEari (RGI) egotzi zion uzta biltzeko langileak ez aurkitzearen errua. Huerta de Peralta enpresak 280.000 euro baino gehiago jaso ditu laguntza publikoetan. Nafarroako gobernuak ere zeresan handia du auzi honetan.

Pikete, manifestazio eta mobilizazio benetan borrokalaria egin dituzte langileek. Deia luzatzen dugu mobilizazioetan parte hartzera eta elkartasuna zabaltzera.

Gora langileon borroka eta klaseko elkartasuna!!

Elkartasun internacionala - Caracaseko Metroa. Errepresiorik ez! Deillily Rodríguez eta besteak berriz onartu!



IZQUIERDA REVOLUCIONARIA
Venezuela

Caracaseko Metroak Deillily Rodríguez bota zuen bere lanpostutik. Emakume langile hori, haur baten ama ere badena, borrokan nabarmendu da zerbitzu publikoak okerrera egin duela salatzeagatik eta lan baldintza duinak eskatzeagatik.

Langile klasearen osotasunaren aurkako eraso bat da hau, eta batez ere emakume langileen aurkakoa, emakumeek lantokietan jazarpena, erasoak eta diskriminazio matxista eta sexista jasan behar izaten baitute.

Enpresako presidentea —César Vega generala—, enpresariaren ohiko estilo mafioso erabiltzen ari da, kontratuko eskubideak ezabatuz, Konstituzioan eta Lan Legean onartutako eskubideak ere ukatuz.

Horregatik langile klasearengana eta Venezuelako herriarengana zuzentzen gara, baita ere mundu mailako sindikatueta eta langile kolektiboetara, beren babesa eta elkartasuna adieraz dezaten. Deillily bere lanpostura itzultzea eta Caracaseko Metroko mehatxu eta kaleratzeekin amaitzea eskatzen dugu.

Elkartasun adierazpena bidali dezakezu
www.euskalherriasozialista.net
eta www.izquierdarevolucionaria.net
webguneetatik.

“Feminismoa, pentsionistak eta Altsasuko kasua izan dira gizarte esnatzeko modu bat eta esateko sistemari: honaino”

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Bel.- Oso urruti. Hainbeste gauza gertatu dira... Tsunami bat bezalakoa izan da. Etorri da, gure gainetik pasa da eta eraman gaitu. Sentsazioa ezer kontrolatu ezinarena izan da. Eta, nahiz eta ezin kontrolatu, erantzun behar duzula. Ezin garela etxean gelditu, ezin dugula pasatzen utzi eta aurre egin behar diogula.

Amaia.- Min askorekin. Zaplazteko ederra jaso genuen. Hor ibiliginen burua altxa nahian, lan asko eginez. Gure kasuan gau horren ondorioz gure bizitzak aldatu dira.

Bel.- Izugarri.

Amaia.- Orduz geroztik mila ordu sartzen. Hainbeste dira egin beharrekoak... egunero hori guztia eginez.

El.- Nola igaro da prozesu judizial guztia?

A.- Oso gogorra. Hasieran, maila juridikoan, esaten genuena zen hori ez zela terrorismo kasu bat eta beraz, auzia Nafarroan bideratu behar zela. Nafarroako auzitegiak arrazoia eman zigun, baina Gorenak esan zuen “baliteke” delitu terroristak egotea eta ate hori zabalik utzi zuen. Horregatik epaitu da kasua azkenean Auzitegi Nazionalen.

Gure seme alaben eskubideak behin baino gehiagotan zapalduak

izan dira. Konstituzioak eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak epaile naturalerako eskubidea babesten dute; baina gure kasuan ez dugu eskubide hori eduki, ezta beste hainbat ere, errugabetasun-presuntzioa, etab.

Gau hartako gertaerak ez dira garrantzitsuena izan. Hasieratik aurkeztu nahi izan ditugu agenteen eta beren bikotekideen bertsioa agerian uzten zituzten frogak eta lekukoak, baina behin baino gehiagotan ukatu dizkigute.

B.- Bai. Nik uste dut salbuespeneko kasua izan dela. Beraiek horrela bihurtu dute eta ibilbide osoa horrela izan da. Nola erantzun zuten medioek, nola erantzun zuten politikariek eta nola egon den hori beti Guardia Zibila, toki eta momentu guztietan beraien azken hitza ematen, eta lehenengoa ere. Eta nola eraman gintuzten Auzitegi Nazionalera, salbuespeneko epaitegi bat. Zer jaso behar genuen hortik? Salbuespeneko erantzuna. Nahiz eta terrorismoaren gaia kendu, gero jarri zuten epaia izugarritzko zigorra izan zen. 13 urte, ikaragarria da.

El.- Zergatik muntaia hau?

B.- Faktore ezberdinak elkartu dira. Alde batetik, planteamendu politikoa, nondik gatozen eta zein

planteamendu politiko zegoen Euskal Herrian. Batzuk urte askotan zehar ETA erabili dute hor fokalizatze noren aurka joan eta hainbat politika justifikatzeko. Eta politikoki hemen badago aldaketa gobernu. Lau urte hautetan, ez dakit ze neurritakoa, baina aldaketa eman da. UPN, PP eta PSOEk gure kasua beraien aurka joateko erabili dute. Argi eta garbi. Faktore horiek guztiak batu eta Estatu espainiarrean dagoen politikarekin lotzen duzu eta gure kasua bihurtzen da kasu bat eredugarria. Esateko “kontuz zer egiten duzun, begira zer gerta daitekeen”.

A.- Aitzakia bat behar zuten hainbat gauzetarako. Ez dugu ahaztu behar garai hartan PP gutxiengoan zegoela, bigarren aldia zen hauteskundeak egin zirela eta hirugarrenez ere hitz egiten zen... Egun haieran Altsasuko gertaerek sekulako toki hartu zuten komunikabideetan. Rajoyk berak txio bat egin zuen “hau ez da horrela geldituko” esanez. Arreta beste norabait bideratu nahi zen. Oso gogorra da ama barentzat gure semeak honen erdian panpin batzuk direla ikustea. Beti esan izan dugu ez dugula heriorik ez martirik nahi. Eta orain ez dakit zer garen...

Bizi izan dugun garai historikoaren koletazo bat ere izan da. ETarik gabe eta Kataluniarik gabe, zertaz hitz egingo dute politikariek? Denok dakigu badaudela mila arazo hitz egiteko eta konpontzeko, baina beti da errazagoa guztiaren errua nazionalismoei eta eraso faltsuei egotea.

Kaleetan mobilizazio historikoak egin dira. Nola baloratzen duzue jasotako babes?

B.- Izugarria. Izugarria. Jaso dugun babes, indarra, energia eta maitasuna eta jasotzen ari garena. Bi urtez, eta hala ere izugarria izaten jarraitzen du. Hor jarraitu behar dugu.

A.- Eta zein jende jatorra eza gutzen ari garen. Oso ezkerreko jendea... Horrek gozatu du gure mina. Lagundu egin digu. Baina fiskaltzarentzat hori da ihes egiteko arriskurako beste bat argumentu bat: injustizia handi honen aurrean jasotzen ari garen elkartasuna. Ikaragarria da. Fiskaltzaren arabera hori da motibo bat kartzelan egon behar dutela berresteko, nahiz eta ez duten inolako aurrekaririk.

B.- Gure kasuak gizartearen aktibazio sozial izugarria ere suposatu du. Feminismoa, pentsionistak eta Altsasuko kasua izan da gizarte esnatzeko modu bat eta esateko sistemari, honaino. Gazte askok ez dute bizi izan beste garaietako mobilizazioak eta kontzientzia soziala, eta honekin askok ezagutu dute arrazoi bat altxatzeko. Eta ikusi dute beren aiton amonak, gurasoak eta denak elkarrekin joan direla manifestaziora. Hortik ere beren hausnarketak eta ondorioak aterako dituzte.

El.- Nola dago egun egotira eta nola planteatzen duzue aurrera egitea?

A.- Fiskalak eskatu du terrorismo delitua egotea gure semei. Nahiz eta epaiak hori baztertu duen, fiskalak errekurritu egin du.

B.- Guk ere errekurritu dugu epaia, eta helegite horren erantzunaren zain gaude. Baina hor ere, hiru kideetatik bik harreman zuzena dute Guardia

Zibilekin. Orduan esaten dugu ez dagoela objektibitatea bermatzeko aukerarik. Badakigu ez dutela helegitea onartuko, eta hori argituko denean guk jarraituko dugu bide judizialekin, berriro Goren, Konstituzionala, Europa...

Bitartean gure semeak kartzelan jarraitzen dute. Hori ere argi eta garbi ari gara salatzen, geroz eta ozenago. Prebentziozko espetxea erabiltzen ari dira modu maltzur ba-

tean, zigorra handiagotzeko. Katalandarrekin bezala. Berdin-berdin. Alde batetik prozesu judizialak luzatzen eta bestetik prebentziozko espetxea luzatzen.

Orain bildu eta elkartu behar gara. Gu gurasoak gara eta badago plataforma ere, gurekin batera lan ikaragarria egiten duela. Definitu behar dugu perspektiba, helburuak erabaki eta nola aurrera egiten dugun ikusi.



Elkarrizketa Altsasuko gazteen amei

Altsasuko gazteen kasua eta egin diren mobilizazio erraldoiak borroka ikur bihurtu dira. Milaka eta milaka izan gara auziperatuak askatzeko eta muntaia polizialekin amaitzeko aldarrikatu dugunak, zuzenean salatuz sistemaren zerbitzura dagoen aparatua judizial hau. Ezker Iraultzaileko kideok, borroka honetan laguntze aldera, nazioarte mailako elkartasun kanpaina bat jarri dugu abian. Bertan parte har dezakezu eta zabaldu www.euskalherria-sozialista.net web orritik Solidarity Altsasuko gazteekin kartelean irudian klikatuz. Bel Pozuetarekin eta Amaia Milibirekin egon gara

elkarrizketan, espetxean dauden Adur eta Jon Anderren amak. Gure eskerrik eta babesik beroena bidali nahi dizkiegu hemen: dik beraiei, gazteei eta senitarteko zein lagun guztiei, muntaia honen aurkako borrokan.

EZKER IRAULTZAILEA.- Bi urte baino gehiago igaro dira 2016ko udazken hartatik. Nola ikusten dituzue orain gertakari horiek eta bizitako ibilbidea?

18. ORRIAN JARRAITZEN DU

Antolatu zaitez

EZKER IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko

- 1.100 euroko gutxieneko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata! Lan eta pentsio kontrarreformak indargabetzea.
- Legez etxe kaleratzeak debekatzea. Eskaria asetzeko behar beste etxebizitza publikoz osatutako parkea, alokairu sozialean.
- Hezkuntza eta osasungintza duina, kalitatezkoa eta doakoa. LOMCE eta Heziberri indargabetzea.
- Indarkeria matxistaren, justizia patriarkalaren eta LGTBI komunitatearen kontrako diskriminazioaren aurka.
- Faxismoa eta arrazakeriaren aurka borrokatu behar da mobilizazioarekin eta antolakuntzarekin. Atzeritarren Legea indargabetu eta Atzeritarren Internamen-

du Zentroak itxi behar dira, etorkinei eta beren familiei eskubide politikoak, sozialak eta ekonomikoak bermatuz.

- Errepresio judizial eta polizialik ez. Adierazpen eskubidearen alde. Mozal Legeari ez!
- Bankaren eta ekonomiaren sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herriko eta Kataluniako errepublika sozialisten alde eta errepublika sozialista federal baten alde, egun Estatu espainiarra osatzen duten herri eta nazioen batasun libre eta borondatezkoan oinarritua, erabaki hori hartuta.